

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durango Udala****Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen 4. Ordenantza Fiskala aldatzea.**

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen 4. Ordenantza Fiskalaren aldaketa, 2022ko apirilaren 27ko Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez, gehiengoz behin-behinean onartu ondoren, hogeita hamar (30) egun heguneke epea irekiko da, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edozein pertsona fisiko edo juridikok udal honetako funtsen Kontu-hartzailetzako prozedura aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzan. Era berean, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan.

Jendaurreko erakustaldia amaitutakoan, dagokion behin betiko erabakia hartuko da, aurkeztutako erreklamazioak eta ordenantzaren behin betiko idazketa ebatziz – Hau da, idazketa, sartu diren aldaketekin –. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, Erabakia behin betiko hartutzat joko da, ordura arte behin-behinekoa, osoko bilkuraren erabakirik behar izan gabe.

Behin betiko onespeneraren erabakia —Berariazkoa edo isilbidezkoa— eta zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketaren testu osoa Udalaren iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta une horretan jarriko dira indarrean.

Hori guztia Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Durango, 2022ko apirilaren 28an.—Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja